

Ermua berriz Herriarteko Txapelketan

Badira urteak Ermuak ez zuela parte hartzen "Herriarteko" edo "interpueblos" pelota txapelketan. Gehiegi. Bereziki Ermuak lortu zituen arrakastak kontuan hartuta. Denboran atzera eginez gero, Ermuak lortu dituen txapelketak ikusi ahal dira.

1970. urtean jolastu zen lehenengo aldiz eta hasiera-hasieratik Ermua talde indartsu bezala agertu zen. Lehenengo finala 1971.ean jolastu zuen nahiz eta orduan galdu. Lehenbiziko txapelketa, 1973an irabazi zuen Totorika, Txurruka, Izarra eta Bildosola pilotariek. Urte batzuk pasa ziren irabazi ezinik baina 80. hamarkadan sekulako gorakada egin eta 1981, 1984, 1985, 1987 eta 1988ko txapelketak lortu zituzten. Era berean, finalerdietara heldu ziren 1974 eta 1980an. Aipatzekoa da finalaletara Ermutik joaten zen jendea, frontoiak goraino betetzen zituzten pilotariak animatuz. Hortik aurrera behe-rantz egin zuen eta tamalez pilota taldea 1991an desagertu zen.



Herriarteko IV. Txapelketa (73-VIII-12). Ermua 2-Sestao 1.

1997an, pilota Ermuan berpizteko asmoarekin, esku pilota eskolak berriro ekin zion Mikel Txapategiren bitartez bidea egiteari. Azken urteotan eta lan asko egin ostean, pixkanaka-pixkanaka Durangaldeko txapelketan maila polita eskaintzen hasi dira.

Herriartekoan parte hartze-ko oster, urteak pasa behar izan dira jubenil eta kadete mailako pilotariak izateko. Azkenean aurten lortu da, eta horrek Bizkaiko Herriarteko txapelketan parte hartzeko aukera eskaini du.

Pilotariak hauek dira: Antxon Lezaun eta Julen Sololuze kadete mailan. Haritz Korpa, Miguel Zafra eta Julen Olaizola jubeniletan. Jose Andres Laurzaristi, Juan Mari Aranburu eta Josu Gallastegi nagusietan. Hiru kanporaketa jolastu dituzte. Lehenengoa Bermeoko taldearen kontra honako emaitzak hauek lortuz: Ermuan: kadetetan 22-1, Jubeniletan 22-5 eta nagusiak 10-22. Bermeon: kadetetan 8-22, jubeniletan 5-22 eta nagusiak 22-4. Guztira 4-2 irabazi zuen Ermuak.

Bigarren kanporaketa Etxebarrin kontra izan zen. Emaitzak: Etxebarrin: kadeteak 1-22, jubenilak 13-22 eta nagusiak 22-9. Ermuan: kadetak 22-1, jubenilak 22-13 eta nagusiak 3-22. Kasu honetan ere, guztira 4-2 irabazi zuen Ermuak. Hurrengo kanporaketa final zortzirenak izan ziren eta Zaratamo aurkaria. Lehia gogorra izan arren, erraz nagusitu ziren Zaratamoko pilotariak eta honenbestez Ermuko taldeak agur esan behar izan dio aurtengoari.

Jokin Txaparlegi



• LENGOAIA
• MUSIKALA
• PIANO
• AKORDEOIA
• FLAUTA
• KLARINETEA

• SAXOFOIA
• TRONPETA
• TRIKITIXA
• KOROA
• TXISTUA

☎ 943 17 18 00

FAMILI, BIKOTE eta
BANAKAKO TERAPIA



PSIKOLOGIA

• HARREMAN ARAZOAK

— bikotearekin
— familiarekin
— kideekin

• JARRERA ARAZOAK

• ESKOLA PORROTA

• ANTSIETATEA, DEPRESIOA,
ELIKADURA ARAZOAK

miriam mujika 676 61 70 55 AURRERA EDIFIZIOA
alnhoa basurko 615 70 37 25 URTZALE KALEA-1.

komunitateak
aseguruak
San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

MUGA



San Pelayo 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

KIROLAK

I AKADEMIA
E ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefonoa (943) 17 90 38

IZOTZ
KONJELATUAK



Ermuko Merkatua.
54 eta 55 postuak
943 17 41 01
Arrasateko Merkatua
943 77 05 98